



IKASTARO OSAGARRIA

ECDIS: KARTA ELEKTRONIKOTAKO INFORMAZIO ETA BISUALIZAZIO SISTEMAK (1. ED)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2019/2020

ARLOA: Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK: 4 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 800 euro

ARDURADUN AKADEMIKOA: **M^a del Mar Ibáñez Fernández**



AURKEZPENA

2010eko Manilaren Konferentziak zuzendutako 1978ko STCW Hitzarmena, eta itsas lanbideetako prestakuntza-mailari buruzko 2012ko azaroaren 21eko 2012/35/EB Zuzentaraua, Karta Elektronikotako Informazio eta Bisualizazio Sistemaren (ECDIS ingelesezko sigletan) prestakuntza arautzen duen nazioarteko arau-esparrua da. Manilako Konferentziak, beste berrikuntza batzuen artean, STCW Kodearen A-II/1, A-II/2 eta A-II/3 koadroen nabigazio-funtzioan beste gaitasun bat sortu zuen kapitainei eta zubiaren ofizialei eragiten diena. Horrela, 2017/01/01tik aurrera, ECDIS duten itsasontzietan doazen kapitain eta ofizial guztiek behar bezala eguneratuta egon behar dute, horrela egiaztatzen duen itsas espezialitateko ziurtagiria dutelarik.

ZURE BILA GABILTZA

Merkataritza Nabigazioko pilotu edo kapitaina bazara eta oraindik Karta Elektronikotako Informazio eta Bisualizazio Sistemako (ECDIS) ziurtagiria ez badaukazu, ikastaro hau interesatuko zaizu. Ekipo hori nabigazio-bide primario gisa erabiltzen duten ontzien kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta konpainia askok, gainera, ohiko paperezko kartak gabe nabigatzea erabaki dute. Itsas Administrazioak homologatuta dago ikastaroa eta dagokion espezialitate-ziurtagiria lortzeko aukera ematen du. ECDIS lanpostu batekin ikasle bakoitzarentzat nabigazio-simulagailuak erabiltzen dituzte, eskarmentu handiko irakasleek ematen dute, ikuspegi praktiko batez oinarrituta.



IRTEERA PROFESIONALAK

Itsas espezialitateko ikastaro hau derrigorrezkoa da lehen nabigazio-sistema bezala ECDIS daukaten ontzietan nabigatzen duten zubi ofizialentzako. Ekipamendu honen erabilera dagoeneko ohikoa da, kasu askotan derrigorrezkoa, Merkataritza Ontzidian.

BALDINTZAK

Ikastaro honetan parte hartzeko, beharrezkoa da honako titulazio akademiko bat edo baliokidea izatea: Marina Zibilean lizentziatura (Nautika); Nautika eta Itsas Garraioko Lizentziatura; Nautika eta Itsas Garraioko Gradua; Merkataritza Nabigazioko Kapitaina.

PRAKTIKAK

Ez dago kanpoko praktikaik. Beharrezko praktikak nabigazio-simulagailuan egiten dira.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2019/10/14-tik 2019/10/18-ra

EMATEKO TOKIA: Bilboko Ingeniaritza Eskola - Portugalete Eraikina - P5P1L y P4P16L aretoak.

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Itsasketa Zientzia eta Teknikak, Itsasontzi Makinak eta Itsasongintza

HELBIDEA: **M^a Díaz de Haro, 68.** 48920 Portugalete

TELEFONOA: 94 601 48 45

POSTA ELEKTRONIKOA: itsaso.ibanez@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.